

BEZERO SEGMENTUA

Gure pastillero elektronikoa jendeari eguneroko botikak modu erraz eta seguru batean hartzen laguntzeko sortu dugu. Askotan pentsatzen dugu, adineko pertsonak direla gehien behar dituztenak, haiek izaten baitira botika gehien hartzen dutenak, baina gure pastilleroa ez da soilik haientzat. Gazte askok ere bitamina, sendagai edo tratamendu desberdinak hartu behar izaten dituzte.



Horregatik, gure produktua edozein adinetako pertsonentzat egokia da. Pastillero elektronikoak pastilla hartzeko momentuan gogorarazten dizu. Botikak ez ahazteko lagungarria da eta dena antolatuta edukitzea errazten du. Horrela, osasuna eta eguneroko bizimodua zaintzeko laguntza praktiko eta fidagarria da.

Produktua bi bezero segmentuetan banatuko dugu. Lehenengoa, bezero indibidualak:

- Adineko pertsonentzako: memoria arazo handiak izaten dituzte, eta botikak hartzerako orduan, ahaztu egiten zaie. Gainera, gure pultseraren bibrazioarengatik, ez diegu haiei bakarrik laguntzen, gorra dauden pertsonentzat aparatu egokia dela uste dugu.
- Pastilla asko hartu behar dituzten pertsonentzat: azkenean, pastilla asko hartzeak askotan arazoak ematen dituelako eta honek ordu bakoitzean hartu beharreko pastilla hartzea lagunduko die.
- Zailtasunak dituztenentzat, ezgaitasun fisiko edo psikikoa duten pertsonak ezingo lukete haien kabuz eguneroko pastillak hartu, beraz, produktu hau haien bizitzarako ezinbestekoa bihurtuko litzateke.

Eta bigarrena, osasun sektorea:

- Osasun sektorean, gure produktua asko behar dute, pertsona heldu asko daudelako eta haiei beraien botika guztiak emateko askoz errazagoa da gure pastilleroa erabiltzen.